Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko apirilaren 3a, ostirala — 64 — Viernes, a 3 de abril de 2020



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

*287/2020 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, foru eskumeneko egoitzetako erabiltzaileak eta zentroen sareko laguntza duten etxebizitzetan bizi direnak etxera itzultzeko programa ezartzen duena, mendekotasun eta/edo desgaitasun egoeran dauden pertsonei zuzendutakoa, Covid-19ak eragindako alarma egoerak irauten duen bitartean; zehazki, laguntza teknikoak eta ekonomikoak dira.*

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak aldarrikatu zuen alarma egoera lurralde osoan, coronavirusak, Covid-19, eragin zuen osasun larrialdi egoerari aurre egiteko.

Covid-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko, Diputatuen Kontseiluak 2020ko martxoaren 24ko bileran hartutako erabakiaren bidez, gizarte politiken arloko txoke plana onartu du. Bertan, lau helburu estrategiko zehaztu dira, 7 jarduera lerroren eta 50 ekintzaren bidez hedatzen direnak.

Txoke plan honetan jasotako jardueren artean, 20. zk. duenak kaltetuei arreta emateko modu alternatiboak aztertzea planteatzen du. Departamentuak ulertzen du arreta emateko modu alternatibo bat izan daitekeela Aldundiaren eskumenekoak diren egoitza zentroetako eta zentroen sareko laguntza duten etxebizitzetako erabiltzaileak, mendekotasuna edo desgaitasuna dutenak, etxera aldi baterako itzultzea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak aldarrikatu zuen alarma egoera amaitzen denetik hiru hilabete igaro arte.

Eta itzulera hori errazteko, departamentuak laguntza teknikoen eta ekonomikoen programa bat jartzen du abian, aipatutako erabiltzaileen etxeko itzulera errazteko.

Diputatuen Kontseiluak 2020ko martxoaren 24an adostu zuen bere bigarren puntuan ahalmena ematea Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari, Txoke Plana betetzeko beharrezkoak diren egintza, erabaki eta ebazpenak har ditzan.

Hori dela eta, foru diputatu honek, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauko, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa, 40.4.b) artikuluak ematen dizkion ahalmenak aintzat hartuta

XEDATZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Aldundiaren eskumenekoak diren mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentro eta laguntza etxebizitzen erabiltzaileak etxera itzultzeko programa, eranskin gisa doana.

*Bigarren.* Baimentzea 244.884,00 euroko gastua programa honi aurre egiteko, aurrekontuko 1. 0920.220.480.01.09 2020 partidaren kargura.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

*Orden Foral 287/2020, de 30 de marzo, que establece el programa para el retorno al domicilio de personas usuarias de residencias, y viviendas con apoyos de la red de centros de competencia foral para personas en situación de dependencia y/o discapacidad durante el estado de alarma por Covid-19, consistente en ayudas técnicas y económicas.*

El Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, declaró el estado de alarma en todo el territorio con el fin de afrontar la situación de emergencia sanitaria provocada por el coronavirus Covid-19.

Con el fin de hacer frente a la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19, el Consejo de Gobierno Foral, mediante acuerdo adoptado en su reunión de 24 de marzo de 2020, ha aprobado el Plan de choque en materia de políticas sociales. En el mismo se han definido cuatro objetivos estratégicos que se despliegan a través de 7 líneas de actuación y 50 acciones.

Entre las acciones recogidas en este Plan de choque, la número 20 plantea estudiar formas alternativas de atención para personas afectadas. Este Departamento comprende que una forma alternativa de atención es la del retorno temporal, a un domicilio particular, de personas usuarias de residencias, y viviendas con apoyos de la red de centros de competencia foral para personas en situación de dependencia y/o discapacidad, hasta tres meses después de que finalice el estado de alarma declarado mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, y sus posibles prórrogas.

Este Departamento pone en marcha un Programa de ayudas técnicas y económicas para facilitar el retorno de las mencionadas personas usuarias a un domicilio particular.

El Consejo Foral de 24 de marzo de 2020 acordó en su punto segundo facultar a la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarias para la correcta ejecución del Plan de choque.

En su virtud, esta diputada foral, en base a las competencias otorgadas en el art. 40.4.b) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa

DISPONE

*Primero.* Aprobar el Programa para el retorno al domicilio de personas usuarias de residencias, y viviendas con apoyos de la red de centros de competencia foral para personas en situación de dependencia y/o discapacidad que se adjunta como anexo.

*Segundo.* Autorizar un gasto por importe de 244.884,00 euros para hacer frente a este Programa, con cargo a la siguiente partida presupuestaria: 1. 0920.220.480.01.09 2020.

EK\CV GAO-I-2020-01759

*Hirugarren.* Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agindua ematea.

*Laugarren.* Programaren indarraldia luzatuko da alarma egoera aldarrikatzen den momentutik (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua), honen amaiera edo luzapenen bukaera arte.

Behar diren ondorioetarako argitaratzen da.

Donostia, 2020ko martxoaren 30a.—M.ª Socorro Equiza Equiza, Departamentuko idazkari teknikoa. (1759)

ERANSKINA

*Foru eskumeneko egoitzetako erabiltzaileak eta zentroen sareko laguntza duten etxebizitzetan bizi direnak etxera itzultzeko programa, mendekotasun eta/edo desgaitasun egoeran dauden pertsonei zuzendutakoa, Covid-19ak eragindako alarma egoerak irauten duen bitartean; zehazki, laguntza teknikoak eta ekonomikoak dira.*

*Helburua.*

Programa honen xedea da mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroetako erabiltzaileak, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetakoak, eta laguntza duten etxebizitzetan bizi direnak bizileku partikular batera aldi baterako itzultzeko laguntza ematea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak aipatzen duen alarma egoera indarrean jarri zenetik hura amaitu edo luzatu eta hiru hilabete igaro arte.

Programa hau gizarte politiken arloko txoke planean jasotako ekintzetan oinarritzen da. Plan hori Diputatuen Kontseiluak onartu zuen 2020ko martxoaren 24an.

Programa honen laguntza zehatzak bi eratakoak dira:

1. Laguntza teknikoak: etxeko egonaldia errazteko laguntzak dira, zerrenda honetan topatzen dira:

— Somier artikulatua.

— Somier artikulaturako koltxoia.

— Eskaren kontrako airezko koltxoia.

— Garabia.

— Dutxako eta komuneko aulki gurpilduna.

— Bainuontziko eserleku birakaria.

— Eskailera igogailua.

2. Laguntza ekonomikoa: Programaren onuradunek honako laguntza ekonomiko hau jasotzeko eskubidea izango dute, egoitza zentrotik irteten diren egunaren biharamunetik zentrora itzultzen diren egunera arte edo, itzultzen ez badira, Gizarte Politiketako Departamentuak zentrora itzultzeko aukera jakinarazten dion egunera arte:

1. 1. eta 2. mailako mendekotasunarekin baloratutako erabiltzaileak 424 €/ hilean.

2. 3. mailako mendekotasunarekin baloratutako erabiltzaileak: 338 €/ hilean.

Onuradunak.

Egoitzetako egoiliarrak:

— Publikoak.

— Pribatuak eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzen dutenak.

Prozedura.

1. Itzultzeko eskaera posta elektroniko bidez egingo da, erabiltzaileak, haren ordezkariak edo izatezko zaintzaileak bidalita eta erabiltzailearen egoitza zentrora zuzenduta (I. eranskinaren arabera). Eskaerak aurkezteko epea itxiko da alarma egoera amaitzen denean edo honen luzapenak bukatzen direnean.

*Tercero.* Ordenar la publicación de la presente Orden Foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Cuarto.* La vigencia del programa se extenderá desde la declaración del estado de alarma (Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo), hasta la finalización del mismo y sus prórrogas.

Lo que se publica a los efectos oportunos.

San Sebastián, a 30 de marzo de 2020.—La secretaria técnica del Departamento, M.ª Socorro Equiza Equiza. (1759)

ANEXO

*Programa para el retorno al domicilio de personas usuarias de residencias, y viviendas con apoyos de la red de centros de competencia foral para personas en situación de dependencia y/o discapacidad durante el estado de alarma por Covid-19, consistente en ayudas técnicas y económicas.*

*Objeto.*

Es objeto del presente programa facilitar el retorno temporal de personas usuarias de centros residenciales para personas mayores dependientes, de centros residenciales para personas con discapacidad y viviendas con apoyos a un domicilio particular desde la entrada en vigor del estado de alarma al que se refiere el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, y hasta tres meses después de su finalización o prórrogas del mismo.

El presente Programa se fundamenta en las acciones recogidas en el Plan de choque en materia de políticas sociales que se aprobó mediante acuerdo de Consejo del Gobierno Foral el 24 de marzo de 2020.

Este Programa consiste en dos tipos de ayudas:

1. Ayudas técnicas: se trata de ayudas para facilitar la estancia en el domicilio, y que consisten en las siguientes:

— Somier articulado.

— Colchón para somier articulado.

— Colchón antiescaras de aire.

— Grúa.

— Silla de ducha e inodoro con ruedas.

— Asiento giratorio de bañera.

— Aparato salvaescaleras.

2. Ayudas económicas: las personas beneficiarias del programa tendrán derecho, desde el día siguiente a su salida del centro residencial hasta el día de su regreso al centro, o si no se produce el regreso, hasta el día que el Departamento de Políticas Sociales le comunique la posibilidad de regreso al centro, a la siguiente ayuda económica:

1. Personas usuarias valoradas con dependencia grado 1 y 2: 424 €/mes.

2. Personas usuarias valoradas con dependencia grado 3: 338 €/mes.

Personas beneficiarias.

Personas residentes de plazas residenciales:

— Públicas.

— Privadas y perceptoras de la prestación económica vinculada al servicio.

Procedimiento.

1. La solicitud de retorno se hará llegar mediante correo electrónico remitido por la persona usuaria, su representante o guardador de hecho y dirigido al centro donde reside la persona usuaria (según anexo I). El plazo de presentación de instancias se cerrará una vez finalizado el estado de alarma y sus prórrogas.

EK\CV GAO-I-2020-01759

2. Eskaeran bertan, etxeko egonaldia errazteko zerrendatzen diren laguntza teknikoetako bat edo batzuk eskatu ahal izango dira. Zerrenda Programa honen «helburua» atalean aurkitzen da.

3. Laguntza ekonomikoa honela ordainduko da, onuradunaren egoitza plazaren arabera:

— Plaza publikoa: egoitza zentroan agertzen den kontu korrontean ordainduko da. Horretarako, egoitza zentroari baimena eman beharko zaio onuradunaren kontu korrontea emateko Gizarte Politiketako Departamentuari.

— Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzen duen plaza pribatua: Gizarte Politiketako Departamentuan agertzen den kontu korrontean ordainduko da.

4. Egoitza zentroak Gizarte Politiketako Departamentuari bidaliko dio eskaera hori, eta hark zehaztuko du erabiltzaileari aldi baterako lagako dion laguntza teknikoa (edo laguntza teknikoak), etxean jarrai dezan.

Gizarte Politiketako Departamentuak ematen duen laguntza teknikoa, biltegian duena, egokiena izango da erabiltzaileen beharretarako.

5. Gizarte Politiketako Departamentuko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendari Nagusiak ebazpena emango du erabiltzailea etxera itzultzeko baimena emanez, laguntza ekonomikoa ematea onartuz, eta laguntza teknikoena, eskatuko balitu.

6. Laguntza teknikoen kkatzeak behar bezala arrazoitu beharko dira.

*Lekualdatzea.*

Egoitza zentroan itzulera-eskaera jaso eta hori Gizarte Politiketako Departamentura bidali ondoren, erabiltzailea lekualdatu ahal izango da, alde batera utzi gabe geroago emango den ebazpena.

*Programaren bukaera.*

Etxeko egonaldia amaitutakoan, onuraduna lehen aurkitzen zen egoitza zentrora itzuli ahalko da, eta eman zaion laguntza teknikoa kenduko zaio. Halaber, laguntza ekonomikoa jasotzeari utziko dio egoitza zentrora itzuli eta hurrengo egunetik aurrera.

Egoitza zentrora ez itzultzea erabakiko balitz, Programa amaitutzat emango da, eta laguntza guztiak, bai teknikoak, bai ekonomikoak, onuradunari zentrora itzuli daitekeela jakinarazten zaion egunean bertan kenduko zaizkio.

2. En la misma solicitud se podrá solicitar una o varias de las ayudas técnicas cuya relación se encuentra en el apartado «objeto» de este Programa.

3. El abono de la ayuda económica se realizará del siguiente modo, dependiendo de la plaza residencial del beneficiario:

— Plaza pública: el abono se efectuará en la cuenta corriente que figure en el centro residencial. Para ello, se deberá autorizar al centro residencial a facilitar al Departamento de Políticas Sociales la cuenta corriente del beneficiario.

— Plaza privada y perceptora de la prestación económica vinculada al servicio: el abono se realizará en la cuenta corriente que conste en el Departamento de Políticas Sociales.

4. El centro residencial remitirá dicha solicitud al Departamento de Políticas Sociales que concretará la/s ayuda/s técnica/s que temporalmente cederá a la persona usuaria para su permanencia en el domicilio.

La ayuda técnica que preste el Departamento de Políticas Sociales será la más adecuada a las necesidades de la persona usuaria de las que el departamento disponga en el almacén.

5. La Directora General de Atención a la Dependencia y la Discapacidad del Departamento de Políticas Sociales dictará resolución concediendo autorización para retornar al domicilio y aprobando la concesión de la ayuda económica, y de las ayudas técnicas, en caso de solicitarlas.

6. Las denegaciones de ayudas técnicas deberán estar debidamente motivadas.

*Traslado.*

Una vez recibida la solicitud de retorno en el centro residencial y enviada ésta al Departamento de Políticas Sociales, se podrá trasladar a la persona usuaria, sin perjuicio de la resolución que se dicte más tarde.

*Finalización del programa.*

Finalizada la estancia en el domicilio, la persona beneficiaria podrá regresar al centro residencial en el que se encontraba, y se le retirará la ayuda técnica que se le hubiese prestado, dejando de percibir asimismo la ayuda económica a partir del día siguiente al de la fecha de regreso al centro residencial.

Aunque se dé la circunstancia de que no se produzca el regreso al centro residencial, el programa habrá finalizado, y todas las ayudas, tanto las técnicas como las económicas, se retirarán el día que se le comunique a la persona beneficiaria la posibilidad de regreso al centro.

EK\CV GAO-I-2020-01759

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

**I ERANSKINA.- EGONALDIAREN ALDI BATERAKO BAJA ETA LAGUNTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKO ESKAERA**

ANEXO I.- SOLICITUD DE BAJA TEMPORAL EN ESTANCIA Y AYUDA TÉCNICA Y ECONÓMICA

**1**.- **ESKATZAILEAREN DATUAK** / DATOS DE LA PERSONA USUARIA:

| | | |
|---|---|---|
| **Abizenak eta Izena** / Apellidos y Nombre: | | |
| **Legezko gaitasungabetzea** / Incapacidad legal: | BAI/SI ☐ | EZ/NO ☐ |

**2.**- **ORDEZKARIAREN DATUAK** / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE:

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Abizenak eta Izena**/ Apellidos y Nombre: | | | | | |
| NA/D.N.I.: | | Tfnos. | | | |
| **Helbidea**/Domicilio: | | | | | |
| **Herria**/Localidad: | | PK/CP: | | **Probintzia**/Provincia: | |
| **Eskatzailearekin duen harremana**/Relación con la persona usuaria: | | | | | |
| **Legezko ordezkaria/**Representante legal | ☐ | | | | |
| **Borondatezko ordezkaria**/Representante voluntario: | ☐ | **Egitatezko zaintzailea**/Guardador de hecho: | ☐ | | |

**3.- DAGOEN ZENTROAREN DATUAK** / DATOS DEL CENTRO DONDE RESIDE:

| | |
|---|---|
| **Zentroaren izena**/Denominación del centro: | |
| **Herria**/Localidad: | |

**4.- ITZULERAK IRAUTEN DUEN BITARTEKO DATUAK /** DATOS MIENTRAS DURE EL RETORNO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Itzulerako helbidea**/Dirección de retorno: | | | | | |
| **Herria**/Localidad: | | PK/CP: | | **Probintzia**/Provincia: | |
| **ITZULERATUAZ ARDURATUKO DEN PERTSONAREN DATUAK**/DATOS DE LA PERSONA QUE SE VA A ENCARGAR DEL RETORNADO | | | | | |
| **Abizenak eta Izena**/ Apellidos y Nombre: | | | | | |
| NA/D.N.I.: | | Tfnos. | | | |

**5.- PRESAZ ORIENTATU BEHARREKO LAGUNTZA PRODUKTUA**/PRODUCTOS DE APOYO URGENTES A ORIENTAR

| | |
|---|---|
| **Somier artikulatua**/Somier articulado | BAI/SI ☐ EZ/NO ☐ |
| **Somier artikulaturako koltxoia**/Colchón para somier articulado | BAI/SI ☐ EZ/NO ☐ |
| **Eskaren kontrako airezko koltxoia** /Colchón Antiescaras de aire | BAI/SI ☐ EZ/NO ☐ |
| **Garabia**/Grúa | BAI/SI ☐ EZ/NO ☐ |
| **Dutxa eta komunontziko aulki gurpilduna** /Silla de ducha e inodoro con ruedas | BAI/SI ☐ EZ/NO ☐ |
| **Bainuontziko eserleku birakaria**/Asiento giratorio de bañera | BAI/SI ☐ EZ/NO ☐ |
| **Eskailera igogailua/**Aparato Salvaescaleras | BAI/SI ☐ EZ/NO ☐ |

EK\CV GAO-I-2020-01759

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

**Onuradun izatearen aitorpena:**
Covid-19k sortutako larrialdi egoera dela eta, goian aipatutako pertsonak edota ordezkariak Gizarte Politiketako Departamentuari egonaldiaren aldi baterako baja, laguntza ekonomikoa eta, hala badagokio, laguntza teknikoa eskatzen dio zaintza bere gain hartuz.

**Kontu korronte zenbakiaren zesioa:**

Egoitza publiko batean bizi den egoiliarrak, edota honen ordezkariak, baimena ematen diote bizi den zentroak Gizarte Politikako Departamentuari kontu korrontearen datuak helarazteko, laguntza ekonomikoaren ordainketa gauzatu ahal izateko.

**Datu pertsonalen tratamendua:**
Datu pertsonalen tratamenduak xede izango du laguntza ekonomikoak eman, kudeatu eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzea.

Xede horren oinarri dira programaren interes publikoa eta bertan parte hartzeko eskaera.

Datuak gordeko dira laguntza emateko prozedura eta aurkez daitezkeen erreklamazioak izapidetzeak irauten duen bitartean.

Tratamenduaren arduradun izango da laguntzen programa kudeatzen duen zuzendaritza nagusia, eta haren aurrean erabili ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak, hari zuzendutako idatzi bidez. Datupertsonalen tratamenduari eta eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan ere jar zaitezke helbide honetan:dbo@gipuzkoa.eus.

**Declaración de condición de persona beneficiaria:**
La persona usuaria y/o representante arriba señalada debido a la situación de emergencia generada por el Covid-19, solicita al Departamento de Políticas Sociales la baja temporal de la estancia en el centro asumiendo su atención y la ayuda económica y, en su caso, ayuda técnica.

**Cesión de los datos de la cuenta corriente:**

La persona usuaria de una plaza residencial pública y/o su representante autorizan al centro donde reside que aporten los datos de su cuenta corriente que consten al Departamento de Políticas Sociales para hacer efectivo el abono de la ayuda económica.

**Tratamiento de datos personales:**
Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar la presente solicitud.

Finalidad basada en el interés público del programa y en su solicitud de participación en ella.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la ayuda y de las reclamaciones que se puedan formular.

El responsable del tratamiento será la dirección general gestora del programa de ayudas, ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido al mismo. Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.

Tokia eta eguna / Lugar y fecha,

Erabiltzailearen sinadura/
Firma de la persona usuaria

Ordezkariaren sinadura /
Firma de la persona representante

Iz/Fdo.:

Izen-abizenak adierazi/Indicar nombre y apellidos

EK\CV GAO-I-2020-01759